



# PRENTSA DOSIERRA / SEGURIDAD KIMIKA

■ informazioa & segurtasuna



# PRENTSA DOSIERRA

SEGURIDAD  
KIMIKA

Informazioa & segurtasuna

- ✓ Seguridad KIMIKA, industriaren konpromisoa segurtasunarekiko
- ✓ Mundua aldatzen ari den euskal industria indartsua
- ✓ Europako legedia ingurumen eta segurtasun arloan
- ✓ Zer egin larrialdi kimiko baten aurrean. Ezagutza eta prebentzioa
- ✓ Komunikazio-kanalak
- ✓ Harremanetarako

## SEGURIDAD KIMIKA, INDUSTRIAREN KONPROMISOA SEGURTASUNAREKIKO

AVEQKIMIKAk (Enpresa Kimikoen Euskal Elkartea) industria kimikoetatik gertu bizi diren herritarrekin duen konpromisoaren emaitza da Seguridad KIMIKA, eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin egindako elkarlanari esker sortu zen. Helburua herritar horiei behar den informazio guztia komunikatzea da, arrisku kimikoko larrialdi baten aurrean nola jokatu jakin dezaten.

Komunikazio-plan honen helburu nagusia segurtasuna bermatzea da industria horien barruko eta kanpoko instalazioetan, baita bertan lan egiten duten eta inguruan bizi diren pertsonena ere. 2015ean, Espainiako ordenamendu juridikoa Europar Batasuneko segurtasun neurrietara egokitu zen, eta, horrekin batera, osagai arriskutsuekin lan egiten duten edota horiek biltegitratzen dituzten enpresen segurtasun-neurrien inguruko informazioa eskuragarriago egin zuen jendearentzat. Enpresa horien gardentasunak, SOS Deiakekin aliantzak eta industria kimikoen inguruan bizi diren herritarrekiko konpromisoak emaitza bat izan zuen: Seguridad KIMIKA.

Seguridad KIMIKAREN jomuga ez da soilik larrialdi-kasuen prebentzioa eta babesa. Proiektu global honek euskal industria kimikoaren gardentasuna bultzatu nahi du, eta haren nazioarteko lehiakortasunaren garrantzia azpimarratu; izan ere, oihartzun handiko proiektuetan dago sartuta, eta mundu guztiko pertsonen bizitzak eraldatzen eta hobetzen dituzten produktu eta zerbitzuak eskaintzen ditu: botikak, garbigarriak, produktu plastikoak, erregaiak...

### AZKEN HELBURUA: EZAGUTZA ETA PREBENTZIOA

Honako hau da Seguridad KIMIKAREN helburu nagusia: produktu kimikoekin lan egiten duten eta/edo kanpoko ingurunean eragina izan dezaketen industrietatik gertu bizi diren herritarrek ongi ezagutzea beren ingurunearen ezaugarriak, eta zer egin larrialdi baten aurrean. Eusko Jaurlaritzako segurtasun- eta laguntza-sail guztiek eta 112 - Sos Deiak prebentzioaren inguruko argibideak ematen dituzte, baina herritarrek beraiek ezagutu behar dute, erakunde ofizial horien eskuetatik, larrialdi bati aurre egiteko informazioa. Horixe da Seguridad KIMIKAREN azken helburua: arriskua ezagutzea eta nola jokatu jakitea.

### INFORMAZIOA ESKURATZEA

Seguridad KIMIKA izaera orokorreko proiektu gisa jaio zen, adin guztietako publikoari zuzendua. Informazioa komunikazio digitaleko kanal berrien bidez jarriko da eskura, baina kanal tradizionalak erabiltzen jarraituko du. Sare sozialetan eta proiektuaren webgunean komunikazioa berehalako da, eta horietan dira, Eusko Jaurlaritzako larrialdietarako kanalekin batera, informazio-kanal ofizial nagusiak. Edukia dinamikoa izango da, publiko eta gailu digital guztietara egokitua.

Seguridad KIMIKAK badaki bideoa formatu garrantzitsua dela, historiari kontatu eta entzuteko gehien kontsumitzen den euskarria baita smartphone-erabiltzaileen artean edo udalerrietako auzokideekin bilerak egitea. Informazio guztia aldebiko komunikazio irekiaren filosofia jarraituz zabalduko da, horixe baita, hain zuzen ere, Seguridad KIMIKAREN oinarria. Finean, larrialdi kimiko baten aurrean inguruko herritarrei lasaitasuna eta babesaren eta prebentzioaren ezagutza helaraztea da proiektuaren xedea.

### SEGURIDAD KIMIKAREN PARTE DIREN UDALERRIAK ETA ENPRESAK

#### ARABA

- Ribabellosa: Exolum
- Lantarón: Dekitra, General Química, Hexion
- Iruña de Oca: Maxam
- Llodio: Guardian Llodio, Tubacex
- Amurrio: Tubacex

#### BIZKAIA

- Loiu: Aceros Olarra
- Zierbena: Bahía de Bizkaia Gas, Esergui, Ineos, Acideka, Tepsa, DBA, Exolum
- Santurtzi: Exolum, Repsol Butano,
- Barakaldo: Gases Oxinorte
- Ajangiz: Maier,
- Galdakao: Maxam
- Muskiz: Petronor

#### GIPUZKOA

- Hernani: Kem One, Electroquímica de Hernani
- Usurbil: Igepak

## EUROPAKO LEGEDIA INGURUMEN ETA SEGURTASUN ARLOAN

2012/18 Europako Zuzentaraua inplementatzen duen 840/2015 Errege Dekretuak industria-segurtasunaren arloan dauden gehienezko eskakizunak jasotzen ditu. Soilik instalazio batzuk bete behar dute legedi hori: hain zuzen ere, istripu bat gertatuz gero, euren tamainarengatik inguruko biztanle-nukleoetan edota beste industria-instalazioetan modu batean edo bestean eragina izan dezaketena.

Gai hau arautzen duten Europako zuzentarauek SEVESO izeneko araudia osatzen dute. Izen horren jatorria Italian dago, bertako herria da eta; 1976an, istripu bat gertatu zen bertako lantegi batean, eta, ongi planifikatuta egon izan balitz, ez zukeen arazo handirik sortuko; aldiz, gertaera oso larria izan zen. Zorionez, ez zen hildakorik egon, baina kutsadurak lursail-eremu zabaletan izan zuen eragina.

SOS Deiarekin lankidetzan egiten diren jarduketa-planek atal berezi bat dute, lantegien inguruan bizi diren herritarrei larrialdi kimiko baten aurrean zer egin azaltzeko. Enpresa bakoitzak arrisku zehatzak ditu, banan-banan aztertzen direnak. Jarduketa hauek **Seguridad KIMIKA**ren, komunikazio-plataformetan ageri dira, baina Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren **webgunean** ere eskuragarri daude.

Erakunde horrek, araudia beteaz, barne eta kanpo simulakroak egiten ditu aldian-aldian Seguridad KIMIKAk enpresen instalazioetan, eta enpresa horietako batzuek eduki behar dituzten sirenak eta komunikazio-kanalak ongi dabiltzala egiaztatzen du.

## ZER EGIN LARRIALDI KIMIKO BATEN AURREAN. EZAGUTZA ETA PREBENTZIOA

Seguridad KIMIKA informazioa emateko proiektua da; haren bidez, webgunea bisitatzen edo jakinarazpenak jasotzen dituen erabiltzaileak jakin dezake zein Kanpo Larrialdi Planek eragiten dion, eta haren bizilekutik gertu dauden enpresak ezagutu ditzake, baita bertan gerta litekeen larrialdi kimiko batek ekar ditzakeen arriskuak ere.

### BADIRA MOTA HONETAKO LARRIALDIEI AURRE EGITEKO AHOLKU OROKORRAK:



Etiket kanpo bazaude, estali arnas-bideak zapi batekin edo arroparekin.



Ez atera kalera, eta ez joan hurren bila eskolara; eskolak ezagutzen dute larrialdietarako protokoloa.



Itxi zaituzte leku seguru batean, barneko geletan, eta zigilatu ateen zirrikituak trapu hezeekin edo zinta isolatzailearekin.



Ez piztu gailu elektrikorik ezta argirik ere, beharrezkoa izan ezean. Ez erre.



Entzun irratia edo konekta zaituzte Interneten mugikorraren bidez; informazio ofiziala 112 zerbitzuaren komunikabide ofizialean agertuko da. Kontsultatu baita ere 112 zerbitzuaren Twitter ofiziala edo Seguridad KIMIKAREN Twitterra.





## KOMUNIKAZIO-KANALAK

Larrialdi kimiko baten aurrean segurtasunari buruzko informazioa nahi baduzu, hainbat komunikaizo-kanal digital dituzu eskura, SOS Deiazen kanalez gain.

- [www.seguridadkimika.eus](http://www.seguridadkimika.eus)
- Facebook: SeguridadKimika
- Twitter: SeguridadKimika
- Youtube: SeguridadKimika
- Instagram: SeguridadKimika
- Posta elektronikoa: [kaixo@seguridadkimika.eus](mailto:kaixo@seguridadkimika.eus)

## HARREMANETARAKO

Aveq-KIMIKA

Gran Vía, 50 - 5º | 48011 - BILBO

TEL: 94.400.28.00 | [info@aveq-kimika.es](mailto:info@aveq-kimika.es)



[www.seguridadkimika.eus](http://www.seguridadkimika.eus)  
[kaixo@seguridadkimika.eus](mailto:kaixo@seguridadkimika.eus)